

**2009ko MAIATZAREN 7an LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2009ko maiatzaren 7an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Xabier Mujika alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Adela Mendiola Gomez
Karlos Irazu Muñoa

Bere ezin etorria azaltzen dute: Iñigo Aginalde Lertxundi
Igor Barandiaran Perez de Arriluzea

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkate-lehendakari jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarreko akta onestu, hala badagokio:
- 2009ko apirilaren 2an egindako ohiko bilkura.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. 2010 urterako tokiko jai egun ofizialaren onespena, hala bada .**
- 4. 2008ko aurrekontuaren likidazioaren berri ematea, hala bada.**
- 5. Larraulgo Arau Subsidiarioetako 1.1. exekuzio unitateko urbanizazioaren lanak egoki egiteko jarritako bermea itzultzeko eginiko eskaera, Gestion y desarrollo Goiargi S.L.**
- 6. Larraulgo Plan orokorra egiteko baldintza administratibo eta teknikoaren onespena eta lizitazioaren hasera, hala bada.**
- 7. Fakturak eta ordainketak.**
- 8. Beste batzuk.**
- 9. Erregu, galderak eta mozioak.**

...//...

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADAGAKIO.

- ▣ 2009 urteko apirilaren 2ko Ohiko Udalbatzaren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

33/2009 Alkateza Ebazpena, apirilaren 2koa, 2008ko aurrekontuaren likidazioa onartzea ebazten duena.

34/2009etik –35/2009ra Alkateza Ebazpenak, non Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren kitapenak onestea ebazten dutena.

36/2009 Alkateza Ebazpena, apirilaren 21koa, 2009ko 1. Hiruhilabeteari dagokion ura eta zabor tasen erroldak onartzea ebazten duena.

37/2009etik –44/2009ra Alkateza Ebazpenak, non Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren kitapenak onestea ebazten dutena.

45/2009 Alkateza Ebazpena, apirilaren 28koa, Jokin Iraola Elozegi jaunari Goeneta barrena baserriaren teilatuko hostoak garbitzeko obra baimena ematea ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA

2010 URTERAKO TOKIKO JAI EGUN OFIZIALAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren 65/2009, DEKRETUA, martxoaren 17koa, Euskal Autonomi Erkidegoko langileen 2010 urteko jaiegun ofizialen egutegia onartzen duena.

Ikusirik egutegia osatzeko Udalek Tokiko Jai eguna proposatu beharra dutela.

Ikusirik Larraulgo jaiegun ofiziala abuztuak 3 San Esteban eguna izaten dela..

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- 2010 urterako Larraulgo Udalerriko jaiegun bezala ondorengoa finkatzea:
Abuztuak 3 asteartea.

BIGARRENA.- Akordio honen berri ematea Eusko Jaurlaritzako Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzari.

LAUGARREN PUNTUA

2008KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA, HALA BADA

Idazkari-kontuhartzaileak 2009/33 Alkate Dekretuaren berri ematen du, non 2008 ekitaldiko udal aurrekontuaren likidazioa onesten den. Batzarkideak jakinaren gainean gelditzen direlarik

2009/33 DEKRETUA

Udal honen 2008ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontuhartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

Lehena.- Udal honen 2008ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2008-12-31n:		97.208,65
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2008-12-31n:		10.222,39
Aurrekontuko zordunak :	1.080,28	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	9.142,11	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2008-12-31n:		10.132,13
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	0,00	

Sarrereren aurrekontuko hartzekodunak:	0,00	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	10.132,13	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakin gordina (1+2+3):		97.298,91
5.- Saldo kobragaitzak:		650,36
6.- Diruzaintzako gerakin likidua (4-5):		96.648,55
7.- Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina:		0,00
8.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (6-7):		96.648,55
9.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:		8.518,82
10.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:		0,00
11.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:		0,00
12.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:		0,00
13.- Aurrekontu emaitza (9+10+11+12):		8.518,82
14.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:		0,00
15.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:		0,00
16.- Kreditu gerakinak, guztira (14+15):		0,00

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

BOSTGARREN PUNTUA

LARRAULGO ARAU SUBSIDIARIOETAKO 1.1. EXEKUZIO UNITATEKO URBANIZAZIOAREN LANAK EGOKI EGITEKO JARRITAKO BERMEA ITZULTZEKO EGINIKO ESKAERA, GESTION Y DESARROLLO GOIARGI S.L.

Ikusirik Rafael Ramirez Aramendia jaunak, Gestion y desarrollo Goiargi, S.L. baltzuaeren izenean eginiko eskaera, non Larraulgo AA-SS etako 1.1. E.U.-an urbanizazio lanak egoki amaitutzat eman direlako abala itzultzeko egin duen eskaera.

Ikusirik 2008ko urriaren 30ean Udal Aholkulari Teknikoa den Eba Erkizia Brion arkitektuak eginiko txostenean jarritako eginbeharrekoak Gestion y desarrollo Goiargi S.L.k burutu dituela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- Larraulgo Arau Subsidiarioen 1.1. exekuzio unitatearen Urbanizazioa bukatu denez, eta kontutan izanik Eba Erkizia Brion arkitektuak eginiko txostenean zioena, obrak bermatzeko jarritako fidantza bueltatzeko beharrezkoak diren izapideak martxan jartzea.

SEIGARREN PUNTUA

**LARRAULGO PLAN OROKORRA EGITEKO BALDINTZA
ADMINISTRATIBO ETA TEKNIKOEN ONESPENA ETA LIZITAZIOAREN
HASERA, HALA BADA**

ZAZPIGARREN PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

TEKNO	1.393,16
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	511,03
DISTRIBUCIONES LOPETEGUI, S.L.	114,90
ARGITU ASESORES	201,26
KIROLZER	110,20
INDARBI ELEKTRIZITATEA	76,30
IZFE	371,20
FERRETERIA BARBE, S.L.	46,41
EBA ERKIZIA BRION	517,53
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	1.735,19
ULAHI	770,69
ATE INFORMATICA	104,40
PATXI ARZAMENDI	288,36
KOLDO JAUREGI	99,76
FONGUI, S.A.	20,18

TUBOS UROLA	232,95
ARGITU ASESORES	126,21
MANPEL	48,72
TELEFONICA	67,53
TELEFONICA	16,21
TELEFONICA	86,91
TELEFONICA	16,21
IBERDROLA	172,04
MEGA	14,50
CALPARSORO INDUSTRIAL	7,70
VASCOPLAST	77,11
EUSKALTEL	183,96
IBERDROLA	96,20
IBERDROLA	13,06
IBERDROLA	14,43
IBERDROLA	216,69
IBERDROLA	172,07
IBERDROLA	52,06
IBERDROLA	168,83
IBERDROLA	11,10
URKI-ONDO MINTEGIAK	86,67
IRATZE LORAZANTZA	203,00

Udalbatzarrak **ahobatez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **8.444,73** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

ZORTZIGARREN PUNTUA
BESTE BATZUK

7.1.TOLOSALDEA GARATZEN: AUZOLAN PROGRAMA DIRU EKARPENA

Ikusirik Tolosaldea Garatzenek igorritako idatzia, non 2009ko urtarrilaren 15eko Batzar Orokorrean onartutako Gestio Planean aurrertzen denaren arabera, Auzolan programaren barruan Larraulgo Udalari egin zaion lanengatik dagokion ekarpena burutu dezan eskaera egiten du, bere zenbatekoa 1.000 euro direlarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Mendi eta bide bazterren garbiketa 2008-2009 Auzolan Programaren barruan, Tolosaldea Garatzen 1.000 eurotako diru ekarpena egitea.

BIGARRENA: 1.000 eurotako gastua onestea.

7.2.TOLOSALDEA GARATZEN: GESTIO PLANAREN DIRU EKARPENA

Ikusirik Tolosaldea Garatzenek igorritako idatzia, non 2009ko urtarrilaren 15eko Batzar Orokorrean onartutako Gestio Planean zehazten denaren arabera, 2009 urterako Tolosaldea Garatzen egin beharreko ekarpena burutu dezan eskaera egiten du, bere zenbatekoa 4.095 euro direlarik.

Aipaturiko diru kopuruaren ekarpena bi zatitan burutu dadin proposatzen da, ekarpen bakoitzean % 50a egingo delarik: Lehena martxoaren 30ean eta bigarrena irailaren 30ean.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldea Garatzen, 2009urteko lehen ekarpena burutzea, hau da, 2.047,50 eurotako diru kopurua.

BIGARRENA: 2.047,50 eurotako gastua onestea.

7.3. AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEARI 2009 URTEKO 1. HIRUHILABETEAREN EKARPENAREN ONESPENA, HALA BADAGOKIO

Ikusirik 2009ko apirilaren 2an Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak aurkezturiko idatzia, non 2009 ekitaldiko 1. Hiruhilabetearen sortu daitezkeen gastuei aurre egin ahal izateko Larraulgo Udalak burutu beharreko ekarpena 7.191,47 eurokoa dela adierazten den.

Ikusirik kreditu nahikoa dagoela.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 7.191,47 eurotako ekarpena burutzea 2009 ekitaldiko 1. Hiruhilabetean sortu daitezkeen gastuei aurre egiteko.

BIGARRENA.- 2009 urteko aurrekontuan partida nahikoa aurreikustea

BEDERATZIGARREN PUNTUA **ERREGU ETA GALDERAK**

Ez dira aurkezten.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 22.15 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA